

Tantaka: Wasapak, mezuak eta boterea



Wasap bat jaso dut sakelako telefonoan. Mezuan kontatzen da Soto de Lezkairun bizi diren etorkin errumaniarrek mota guztietako abantailak eta faborezko jarrera izaten duten nafar instituzioetatik, bai udaletatik bai nafar gobernutik. Mezuak ba du intentzio pozoitsua bat, salatu nahi du guk, etxeok, ordaintzen ditugun zergekin, alfer hutsak omen diren pertsona batzuk mantentzen ditugula. Hemen, Nafarroan dagoen prekarietatea eta pobreziarekin bertako jendeari laguntza eman ordez dirua uxatzen dugula lan egin ez duten etorkinak laguntzen. Mezu horrek pertsonen arteko gorrotoa elikatu nahi du, ez du inolako asmorik justiziaren alde lan egiteko. Laster etorri da wasap horren ezeztapena, Zurrumurruen Kontrako Sareak igorri du komunikatu bat esanez gezurra dela wasap horretan salatzen duena. Bai, egia da hainbat laguntza jasotzen dutela pertsona horiek, pertsonen harrera egiteko protokoloagoak esaten duenaren arabera. Beste pertsona askok jasotzen duen bezala baina inolaz ere horiek baino gehiago.

Errealitateak eten gabe kolpatzen gaitu, ustelkeri politikoa, ustelkeri ekonomikoa, pribatizazioak, langabezia ... irratian entzuten, telebistan ikusten, interneten berria jasotzen dugun, jakin ganean gaude gertatzen ari denaz, baina zergatik gara hain selektiboak?, zergatik sinesten ditugu gezur interesatuak, eta egia berdaderoari ez diogu putu kasurik egiten? Trumpek wasap, twitter, facebook, eta horrelako teknologia erabiliz, politika gezurra zabaldu du, gezurra baita bere politikaren zutabe nagusia eta gu itsuak bagina bezala sinetsi egiten dugu, eta onartu diogu boterea hartzea. Boterea gu, pobreak gehiago izorratzeko, errazago esplotatzeko. Eta guk, gu baino prekarioagoak diren pertsonen kontra jotzen dugu, burutik ote gaude? Zergatik ez bideratzen gure amorrua boteretsuenen kontra? Susmoa dut mezu maltzur eta xenofoboak sarean zabaltzen dutenak oso gustura daude Trump, M^a Lepen eta enparauekin.